

Gure lan eskaintza bezeroengana heltzeko, kanal mota desberdinak erabiliko ditugu. Alde batetik, kanal propioak esleituko ditugu bezeroengana iritsi ahal izateko sare sozialen eta propagandaren bitartez.

Esan bezala kanal zuzenen bitartez, hau da, online plataformak erabiliz gure zerbitzu edota prezio desberdinak esleituko ditugu, beharrezko informazio guztia helaraziz. Horretarako, erabiliko ditugun sare sozial ezberdinak hauek izango lirateke: Instagram, Facebook, Twitter eta Tik Tok. Bertan, informazioa modu original, erakargarri eta txukun batean aurkeztuko da.

Zeharkako kanaletan, aldiz, Durangaldeko jostailu denda, ikastetxe eta hurrei loturiko dendetan propaganda eta iragarkiak partekatuko ditugu bezeroak erakartzeko.

Kanal hauen bitartez, uneoro gure bezeroekiko komunikazioa bermatuko dugu eta gure zerbitzuen banaketa eta prezio desberdinak sailkatu eta antolatuko ditugu.

Gure zerbitzua ezaguna izan dadin, hainbat kanal ezberdinetan argitaratuko dugu, mundu guztiaren eskura egon dadin, aurretik aipatutako sare sozialen bitartez.

Aplikazio konkretu hauek aipatu dira, hain zuzen ere, gaur egun jende gehienak erabiltzen dituzten aplikazioak direlako eta pertsona askorengana eskura daitezkeelako. Horrez gain, beste hainbat propaganda elementu erabiliko ditugu harremanak sortzeko: kartelak eta panfletoak.

KANALA	DESKRIBAPENA
INSTAGRAM/FACEBOOK/TWITTER	Kontu bat egingo dugu, eta bertan barneko argazkiak, jarduerak, ekitaldiak... ikusiko dira, non bertan gazteak jolasean arituko dira. Hainbat jolasetan adingabeen argazkiak ere ager daitezke (betiere gurasoen zein tutoreen legezko baimena lortzen badugu).
TIK TOK	Bideo laburrak egingo dira barruko instalazioak, jarduera ludikoen bideoak, ekitaldiak... erakusten. Bideo hauek hezitzaileak eginak izango dira, baina beharbada umeak agertu daitezke bideoan zehar (aurretik esan bezala, gurasoen edota tutoreen baimenarekin)

KARTELAK	Hainbat kartel jarriko ditugu eremuaren esparruan, ezagutzera emateko. Karteletan, berriz, webgunera eramango gaituen QRL bat jarriko dugu informazio guztia esleituz. Horrela, umeak dituzten familia ezberdinek honen berri ohartuko dira.
PANFLETOAK	Noizean behin informazioa duten panfletoak banatuko dira ikastetxeetatik irteteen, interesatzen zaigun sektorerara iristeko. Hau da, ume zein gazteez osatutako familiak.